

ITZULPENA¹

Araua: 2006/11/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA 2006ko otsailaren 15ekoa, Erkidegoaren ingurune urtarrean isuritako substantzia arriskutsu jakin batzuek eragindako kutsadurari buruzkoa (Bertsio kodifikatua (Testu egokia EEEari dagokionez))

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen (IVAP/HAAE) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren (IZO) bidez, Zerbitzu honek itzulpenari dagokion egiaztatzea emanez.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

1

Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratua, hauxe da: *DIRECTIVA 2006/11/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO de 15 de febrero de 2006 relativa a la contaminación causada por determinadas sustancias peligrosas vertidas en el medio acuático de la Comunidad (Versión codificada)* (Diario Oficial de la Unión Europea, L 64 de 4/3/2006)

2006/11/EE ZUZENTARAU, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2006ko otsailaren 15ekoa,

Erkidegoaren ingurune urtarrean isuritako substantzia arriskutsu jakin batzuek eragindako kutsadurari buruzkoa

(Bertsio kodifikatua)

(Testu egokia EEeari dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europar Batasuna eratzen duen Ituna, eta, bereziki, haren 175. artikuluan 1. paragrafoa aztertu dute, Batzordearen proposamena, eta Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute¹,

Kontsulta egin diote aldez aurretik Eskualdeetako Komiteari,

Itunaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki²

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Kontseiluaren 76/464/EEE Zuzentaraua —1976ko maiatzaren 4koa da, Erkidegoaren ingurune urtarrean isuritako substantzia arriskutsu jakin batzuek sorturiko kutsadurari buruzkoa³— hainbat alditan aldatu dute⁴, eta funtsean aldatu ere. Arrazionaltasun eta argitasun handiagora lortze aldera, Zuzentarau hori kodifikatzea komeni da.

(2) Estatukideek oro har eta aldi berean jardutea beharrezkoa da, Erkidegoaren ingurune urtarra kutsaduratik babesteko, batez ere hainbat substantzia iraunkor, toxiko eta biometagarri eragindakotik babesteko.

(3) Hainbat hitzarmenek nazioarteko ur-lasterrak eta ingurune itsastarra kutsaduratik babestea dute helburutzat. Hitzarmen horiek modu harmonikoan aplikatu behar direla bermatu behar da.

(4) Ingurune urtarrean substantzia arriskutsu jakin batzuk isurtzeari dagokionez Estatukideetan aplikagarriak diren xedapenen desberdintasunak eskumen-baldintza desberdinak sor ditzakete eta, hortaz, barne-merkatuaren funtzionamenduan zuzeneko eragina izan.

(5) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1600/2002/EE Erabakiak —2002ko uztailaren 22koa da,

¹ EO C 117 E, 2004.04.30ekoa, 10. or.

² Europako Parlamentuaren Irizpena, 2004ko urriaren 26koa (EO C 174 E, 2005.7.14koa, 39. or.), eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko urtarrilaren 30ekoa.

³ EO L 129, 1976.5.18koa, 23. or. Azken buruan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 60/2003 Erregelamenduak (EO L 327, 2000.12.22koa, 1. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

⁴ Ikus II. eranskinean A zatia.

Ingurumen Arloko Erkidegoko Seigarren Ekintza Plana ezartzen duena⁵— hainbat neurri aurreikusten ditu, ur kontinentalak eta itsas urak kutsatzaile jakin batzuetatik babestera bideratutakoak.

(6) Erkidegoaren ingurune urtarrean babes eraginkorra bermatzeko, lehen zerrenda bat ezarri behar da —I. zerrenda deiturikoa—, bana-banako substantzia jakin batzuk bilduko dituen, batez ere haien toxikotasun, iraunkortasun eta biometaketagatik aukeraturikoak, salbu eta biologikoki ez-kaltegarriak edo substantzia biologikoki ez-kaltegarrietan bizkor eraldatzen direnak, baita bigarren zerrenda bat ere —II. zerrenda deiturikoa—, ingurune urtarrean eragin kaltegarria duten substantziak bilduko dituen, baina zona jakin batera mugatu ahalko dena, betiere ur hartzailen ezaugarrien eta horien kokapenaren arabera. Substantzia horien isurketa guztiek aldez aurreko baimena finkatu beharko dute, emisio-arauak finkatze aldera.

(7) I. zerrendan bilduriko substantzia arriskutsuek eragindako kutsadura ezabatu behar da. Muga-balioak finkatu dira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EE Zuzentaruaren —2003ko urriaren 23koa da, uren politikaren eremuan jarduteko Erkidegoko esparru bat ezartzen duena⁶— IX. eranskinean bilduriko Zuzentaruaren 2000/60/EE Zuzentaruaren 16. artikulua hainbat prozedura ezartzen ditu, eta horien arabera ezartzen dira lehentasuneko substantzien kontrol-neurriak eta kalitate-arauak.

(6)

(8) II. zerrendan barne harturiko substantziek eragindako uren kutsadura murriztu behar da. Horretarako, Kontseiluaren Zuzentaruak errespetatzen dituzten uretarako ingurumen-kalitateko arauak barnean hartzen dituzten programa batzuk ezarri behar dituzte Estatukideek. Substantzia horiei aplikatu dakizkiekeen emisio-arauak ingurumen-kalitateko arau horien arabera egin behar dira.

(9) Garrantzitsua da Estatukide batek edo hainbatek, bana-banaka edo batera, Zuzentarau honetan aurreikusitakoak baino xedapen zorrotzagoak ezarri ahal izatea.

(10) Garrantzitsua da Erkidegoaren ingurune urtarrean eginiko substantzia bereziki arriskutsu jakin batzuen

⁵ EO C 242 E, 2002.9.10ekoa, 1. or.

⁶ EO L 327, 2000.12.22koa, 1. or. 2455/2001/EE Erabakiak (EO L 331, 2001.12.15ekoa, 1. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

isurketen inbentarioa egitea, haien jatorria ezagutze aldera.

(11) Beharrezkoa gerta liteke I. eranskinaren I. eta II. zerrendak berrikustea eta, hala badagokio, osatzea, eskuraturiko esperientzia kontuan izanda, II. zerrendako substantziaren bat I. zerrendara aldatuz, hala badagokio.

(12) Zuzentarau honek ez ditu eraginpean hartuko Zuzentarrak Zuzenbide nazionalera aldatzeko epeei buruzko Estatukideen betebeharrak; II. eranskinaren B zatian daude bilduta betebeharrak.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

7. artikuluan xedaturikoa aparte utzi gabe, honako hauei aplikatuko zaie Zuzentarrak hau:

- a) azaleko barne-urei;
- b) jurisdikziopeko itsas urei;
- c) eta kostaldeko barne-urei.

2. artikulua

Zuzentarrak honi begira, honako definizio hauek hartuko dira kontuan:

- a) «azaleko barne-urak»: azaleko ur kontinental geldi edo ibiliak, betiere Estatukide baten edo hainbaten lurraldekoak;
- b) «kostaldeko barne-urak»: jurisdikziopeko itsasoaren zabalera neurtzeko balio duen oinarri-lerroaren aurretik dauden urak, ur-lasterren kasuan ur kontinentalen mugaraino zabaltzen direnak;
- c) «ur kontinentalen muga»: ur-laster batean dagoen gunea, non, betiere itsasbeheran eta ur kontinentalen emaria ahul dagoen aldietan, gazitasun-maila nabarmen hazten den itsasoko ura dela-eta;
- d) «isurketa»: I. eranskinaren I. zerrendan edo II. zerrendan adierazitako substantziak I. artikuluan aurreikusitako uretan sartzea, honako hauek izan ezik:
 - i) dragatzeko lohien isurketa,
 - ii) itsasontzietatik jurisdikziopeko itsasoko uretan eginiko isurketa operatiboak,
 - iii) itsasontzietatik jurisdikziopeko itsasoko uretan eginiko hondakin-urperaketa,
- e) «kutsadura»: gizakiak ingurune urtarrean eginiko substantzien edo energiaren isurketa, zuzenean edo zeharka, betiere giza osasuna arriskuan jar dezakeen eraginik badu, baliabide biziak eta sistema ekologiko urtarrek kalte baditzaiteke, jostatzeko lekuetan kalteak eragin baditzaiteke edo enbarazuak eragin baditzaiteke uraren bestelako erabilera legitimoetarako.

3. artikulua

Estatukideek neurri egokiak hartuko dituzte I. eranskinaren I. zerrendan (aurreantzean «I. zerrendako substantziak» deituko ditugu) adierazitako substantzien kategoriatan eta

taldeetan barne harturiko substantzia arriskutsuek eragindako I. artikuluan adierazitako uren kutsadura ezabatuz, eta baita I. eranskinaren II. zerrendan (aurreantzean «II. zerrendako substantziak» deituko ditugu) adierazitako substantzien kategoriatan eta taldeetan barne harturiko substantzia arriskutsuek eragindako ur horien kutsadura murrizteko ere, Zuzentarrak honi jarraiki.

4. artikulua

I. zerrendako substantziei dagokienez:

- a) substantzia horietakoren bat bil dezakeen I. artikuluan adierazitako uretan eginiko isurketa guztiek alde aurreko baimena beharko dute, dagokion Estatukidearen agintaritzak eskudunak emandakoa;
- b) substantzia horiek I. artikuluan adierazitako isurtzeari dagokienez, eta beharrezkoa denean Zuzentarrak honetan aplikatzeari begira isurketa horiek estoldetan egiteari dagokienez, baimenak finkatzeko dituzte emisio-ereduak;
- c) epe mugatu baterako soilik eman ahalko da baimena. Berritu ahalko da, betiere 2000/60/EE Zuzentarraren IX. eranskinean bilduriko Zuzentarrak finkaturiko emisio muga-balioen behin-behineko aldaketak kontuan izanda.

5. artikulua

1. Laugarren artikulua aplikatzeko emandako baimenek finkaturiko emisio-arauek honako hauek zehaztuko dituzte:

- a) isurketan onargarria den substantzia baten gehieneko kontzentrazioa. Diluzioa izanez gero, 2000/60/EE Zuzentarraren IX. eranskinean bilduriko Zuzentarrak finkaturiko emisio muga-balioa diluzio-faktorearekin zatituko da;
- b) substantzia baten gehieneko kantitatea isurketetan aldi bakar batean edo hainbatetan, beharrezkoa izanez gero kutsatzailearen pisu-unitatean adierazita jarduerak kutsatzailearen elementu ezaugarriaren unitateko (esaterako, pisu-unitate lehengaiko edo produktu-unitateko).
- 2. Baimen bakoitzerako, dagokion Estatukidearen agintaritzak finkatu ahal izango ditu, beharrezkoa izanez gero, emisio-arauek zorrotz batzuk, 2000/60/EE Zuzentarraren IX. eranskinean bilduriko Zuzentarrak finkaturiko emisio muga-balioen aplikazioaren ondoriozkoa, bereziki kontuan hartuta dagokion substantziaren toxikotasun, iraunkortasun eta biometaketa isurketa egiten den ingurunean.

3. Isurketaren egileak aitortzen badu ezinezkoa dela ezarritako emisio-arauek betetzea, edo Estatukidearen agintaritzak eskudunak ezintasun hori egiaztatzen badu, aukera hori ukatuko da.

4. Emisio-arauek errespetatzen direnean, dagokion Estatukidearen agintaritzak eskudunak dagokion neurriak hartuko ditu baimenaren baldintzak bete daitezkeen, eta, beharrezkoa izanez gero, isurketa debekatzeko.

6. artikulua

1. II. zerrendako substantziek I. artikuluan adierazitako uretan eragindako kutsadura murrizteko, zenbait programa ezarritako dituzte Estatukideek, eta horiek gauzatze aldera 2.

eta 3. paragrafoetan zehazturiko bitartekoak aplikatuko dituzte bereziki.

2. II. zerrendako substantziaren bat eduki dezakeen 1. artikuluan adierazitako uretan eginiko edozein isurketak aldez aurreko baimena beharko du, dagokion Estatukideko agintaritzak eskudunak emandakoa, non emisio-araua adierazten den. 3. paragrafoaren arabera ezarritako ingurumen-kalitateko arauen arabera kalkulatu dira arau horiek.

3. 1. paragrafoan adierazitako programak urentzako ingurumen-kalitateko arau batzuk bilduko dituzte, Kontseiluaren Zuzentarauak errespetatuz ezarriko direnak, halakorik izanez gero.

4. Substantzien edo substantzia taldeen, baita ere produktuen, konposizioari eta erabilerari buruzko berariazko xedapenak ere barnean hartu ahalko dituzte programek, eta arlo ekonomikoan bideragarriak izaki eta berrienak diren aurrerabide teknikoak izango dituzte kontuan.

5. Programek zehaztuko dituzte gauzatze-epeak.

6. Laburbilduta igorriko zaizkio Batzordeari programak eta horien aplikazioaren emaitzak.

7. Batzordeak erregulariki antolatuko du Estatukideekin batera programen uztartze-lana, programa horiek behar bezala harmonizatuta gauzatzen direla bermatzeko. Beharrezkoa izanez gero, arlo horri buruzko proposamen batzuk aurkeztuko dizkio Europako Parlamentuari eta Kontseiluari.

7. artikulua

Estatukide guztiak neurri egokiak hartuko dituzte Zuzentarau honi jarraiki harturiko neurriak gauzatzeko, 1. artikulua aplikatzen ez zaien uren kutsadura ez areagotzeko moduan. Era berean, Zuzentarau honetako xedapenak saihestea helburu edo ondorio duten ekintza guztiak debekatuko ditu.

8. artikulua

Zuzentarau honi jarraiki harturiko neurrien aplikazioak ezin izango du inoiz ere eragin 1. artikuluan adierazitako uren kutsadura zeharka edo zuzenean areagotzea.

9. artikulua

Estatukide batek edo hainbatek, bakarka edo batera, Zuzentarau honetan aurreikusitakoak baino neurri zorrotzagoak hartu ahal izango dituzte.

10. artikulua

Agintaritzak eskudunak I. zerrendako substantziak eduki ditzaketan 1. artikuluan adierazitako uretan eginiko isurketen inbentario bat egingo du, betiere haiei emisio-arauak aplikatzen bazaizkie.

11. artikulua

1. Hiru urtean, eta lehen aldiz 1993-1995 aldirako (biak barne), Estatukideek informazioa igorriko diote Batzordeari Zuzentarau honen aplikazioari buruz, sektore-txosten baten bidez, Erkidegoko dagozkion gainerako Zuzentarauak ere jorratuko dituenak. Batzordeak landuriko galdesorta edo eskema batean oinarrituta prestatuko da txosten hori,

Kontseiluaren 91/ 692/EEE Zuzentarauaren —1991ko abenduaren 23koa da, ingurumenaren gaineko Zuzentarau jakin batzuk aplikatzeari buruzko normalizazioari eta arrazionalizazioari buruzkoa¹— 6. artikuluan bildutako prozedurari jarraiki. Galdesorta edo eskema Estatukideei igorriko zaie txostenak betetzen duten aldia hasi baino sei hilabete lehenago. Txostena bederatzi hilabeteko epean igorriko zaio Batzordeari, txostenak berak hartzen duen 3 urteko epea amaitzen denetik zenbatzen hasita.

Zuzentarauaren aplikazioari buruzko Erkidegoaren txosten bat argitaratuko du Batzordeak, bederatzi hilabeteko epean Estatukideen txostenak jasotzen dituenetik zenbatzen hasita.

2. Lehenengo paragrafoa aplikatuta lorturiko informazioak bakar-bakarrik erabili ahal izango dira eskatu ziren xederako.

3. Batzordea eta Estatukideetako agintaritzak eskudunak, baita haien funtzionarioek eta gainerako agenteek ere, ezin izango dituzte inola ere zabaldu Zuzentarau honen aplikazioan lorturiko informazioak, betiere Zuzentarauaren nondik norakoa dela-eta sekretu profesionalaren babespean badaude.

4. 2. eta 3. paragrafoetan xedaturikoak ez du eragotziko enpresen edo enpresen elkarteei buruzko bana-banako azalpenak barnean hartzen ez dituzten informazio orokorrak edo azterlanak argitaratzea.

12. artikulua

Europako Parlamentuak edo Kontseiluak, Batzordeak eskatuta —bere ekimenez edo Estatukide batek bultzatuta jardungo du—, berrikusi eta, beharrezkoa izanez gero, bete egingo dituzte eranskinaren I. eta II. zerrendak, bilduriko esperientzia kontuan izanda, substantzia jakin batzuk II. zerrendatik I. zerrendara aldatuz, hala badagokio.

13. artikulua

76/464/EEE Zuzentzaraua indargabetzen da, II. eranskinaren B zatian bilduta dauden Zuzentarauak Zuzenbide nazionalera aldatzeko epeei buruz Estatukideen betebeharrak aparte utzi gabe.

Indargabeturiko Zuzentarauari buruzko erreferentziak Zuzentarau honi buruz eginikotzat hartuko dira, III. eranskinan bilduta dagoen korrespondentzia-taularen arabera.

14. artikulua

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen denetik hogeit egunerako jarriko da indarrean Zuzentarau hau.

15. artikulua

Estatukideak dira Zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon egina, 2006ko otsailaren 15ean.

Europako Parlamentuaren izenean,
Presidentea
J. BORRELL FONTELLES

¹ EO L 377, 1991.12.31eko, 48. or. Azken buruan Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1882/2003 Erregelamenduak [EE] (EO L 284, 2003.10.31koa, 1. or.) aldatu zuen Zuzentzaraua.

Kontseiluaren izenean,
Presidentea

H. WINKLER

I. ERANSKINA

Substantzien kategoria eta taldeen I. zerrenda

I. zerrendak ondoren adierazten diren substantzien kategoria eta taldeetakoak diren bana-banako substantzia jakin batzuk biltzen ditu, batez ere haien toxikotasun, iraunkortasun eta biometaketagatik hautaturikoak, salbu eta biologikoki ez-kaltegarriak edo substantzia biologikoki ez-kaltegarrietan bizkor eraldatzen direnak:

- 1) konposatu organohalogenatuak eta ingurune urtarrean horrelako konposatuak eragin ditzaketen substantziak;
- 2) konposatu organofosforikoak;
- 3) konposatu organoestanikoak;
- 4) inguru urtarrean edo inguru urtarraren bidez transmitituta eragin kartzinogeno frogatua duten substantziak ¹;
- 5) merkurioa eta merkurio-konposatuak;
- 6) kadmioa eta kadmio-konposatuak;
- 7) olio mineral iraunkorrak edo petrolio-jatorriko hidrokarbu iraunkorrak; eta 3., 7., 8. eta 12. artikuluen aplikazioari dagokionez;
- 8) flota dezaketan, esekita iraun dezaketan edo hondora daitezkeen materia sintetikoak, uraren edozein erabilera kalte dezaketanak.

Substantzien kategoria eta taldeen II. zerrenda

Honako hauek biltzen ditu II. zerrendak:

— I. zerrendan bilduriko substantzien kategoria eta taldeetako substantziak, zeinentzat 2000/60/EE Zuzentarauaren IX. eranskinean bilduriko Zuzentarauek ez dituzten zehaztu berek finkaturiko emisio muga-balioak,

— bana-banako substantzia jakin batzuk eta ondoren zerrendaturiko substantzien kategoria eta taldeetako substantzia mota jakin batzuk, eta ondorio kaltegarriak dituzten inguru urtarrean; dena den, zona jakin batera mugatu ahalko dira, eta ur hartzaileen ezaugarrien eta haien kokapenaren arabera daude.

Bigarren gidoiari dagozkion substantzien kategoria eta taldeak

1) Honako metaloide eta metal hauek, eta haien konposatuak:

1. zinka	6. selenioa	11. eztainua	16. banadioa
2. kobrea	7. artsenikoa	12. barioa	17. kobaltoa
3. nikela	8. antimonioa	13. berilioa	18. talioa
4. kromoa	9. molibdenoa	14. boroa	19. telurioa
5. beruna	10. titanioa	15. uranioa	20. zilarra

2) I. zerrendan bilduta ez dauden biozidak eta haien deribatuak.

3) Ingurune urtarretik lorturiko giza kontsumoko produktuen zapore eta usainerako ondorio kaltegarriak dituzten substantziak, baita uretan horrelako substantziak sorraraz ditzaketen konposatuak ere.

4) Konposatu organosiliziko toxiko edo iraunkorrak eta uretan horrelako konposatuak sorraraz ditzaketen substantziak, salbu eta biologikoki ez-kaltegarriak edo substantzia biologikoki ez-kaltegarrietan bizkor eraldatzen direnak.

5) Fosforozko eta oinarriko fosforozko konposatu ez-organikoak.

6) Olio mineral ez-iraunkorrak eta petrolio-jatorriko hidrokarbu ez-iraunkorrak.

7) Zianuroak, fluoruroak.

8) Oxigeno-balantzean kontrako eragina duten substantziak, batez ere honako hauek: amoniakoa eta nitritoak.

7. artikuluari buruzko deklarazioa

¹ II. zerrendan barne harturiko substantzia jakin batzuek eragin kartzinogenoa badute, zerrenda honetako 4. kategorian bilduko dira.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Gutxienez Zuzentarau honetakoak bezain gogorrak diren eskakizunak ezartzeko konpromisoa hartzen dute Estatukideek, itsas zabalean hondar-urak hustubideetatik isurtzeari dagokionez.

II. ERANSKINA

A ZATIA

INDARGABETURIKO ZUZENTARAU BERE ONDOZ ONDOKO ALDAKETEKIN

(13. artikuluan bildutakoak)

Kontseiluaren 76/464/EEE Zuzentaraua (EO L 129, 1976.5.18koa, 23. or.)

Kontseiluaren 91/692/EEE Zuzentaraua (EO L 377, 1991.12.31koa, 48. or.)

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2000/60/EEE Zuzentaraua (EO L 327, 2000.12.22koa, 1. or.)

I. eranskinaren a) letra bakarrik

76/ 464/EEE Zuzentaruaren 6. artikuluan 22. artikulua 2. paragrafoaren laugarren gidoiari eginiko erreferentziari dagokionez soilik

B ZATIA

ZUZENBIDE NAZIONALERA ALDATZEKO EPEAK

(13. artikuluan bildutakoak)

Zuzentaraua	Aldatzeko epea
76/464/EEE	—
91/692/EEE	1993ko urtarrilaren 1a
2000/60/EE	2003ko abenduaren 22a

III. ERANSKINA

KORRESPONDENTZIEN TAULA

76/464/EEE Zuzentaraua	Zuzentaru hau
1. artikulua, 1. paragrafoa, sarrerako fasea	1. artikulua, sarrerako fasea
1. artikulua, 1. paragrafoa, lehen gidoia	1. artikulua, letra a)
1. artikulua, 1. paragrafoa, bigarren gidoia	1. artikulua, letra b)
1. artikulua, 1. paragrafoa, hirugarren gidoia	1. artikulua, letra c)
1. artikulua, 1. paragrafoa, laugarren gidoia	—
1. artikulua, 2. paragrafoa, sarrerako fasea	2. artikulua, sarrerako fasea
1. artikulua, 2. paragrafoa, a), b) eta c) letrak	2. artikulua, a), b) eta c) letrak
1. artikulua, 2. paragrafoa, d) letra, lehen gidoia	2. artikulua, d) letra, i) tartekia
1. artikulua, 2. paragrafoa, d) letra, bigarren gidoia	2. artikulua, d) letra, ii) tartekia
1. artikulua, 2. paragrafoa, d) letra, hirugarren gidoia	2. artikulua, d) letra, iii) tartekia
1. artikulua, 2. paragrafoa, e) letra	2. artikulua, e) letra
2. artikulua	3. artikulua
3. artikulua, sarrerako fasea	4. artikulua, sarrerako fasea
3. artikulua. 1. puntua	4. artikulua, letra a)
3. artikulua. 2. puntua:	4. artikulua, letra b)
3. artikulua. 3. puntua:	—
3. artikulua. 4. puntua:	4. artikulua, letra c)
4. artikulua	—
5. artikulua	5. artikulua
7. artikulua	6. artikulua
8. artikulua	7. artikulua
9. artikulua	8. artikulua
10. artikulua	9. artikulua
11. artikulua	10. artikulua
12. artikulua	—
13. artikulua	11. artikulua
14. artikulua	12. artikulua
—	13. artikulua
—	14. artikulua
15. artikulua	15. artikulua
Eranskina	I. eranskina
—	II. eranskina
—	III eranskina